

Eusko Ikaskuntzaren Euskal Estatutako Estatutu Orokorreretik 75 urtera

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV) 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen ekimenez sortu zenetik, Hego Euskal Herriko lau lurrealdeak erakundeen aldetik egituratzeko eginkizunean inplikatu zen.

Eginkizun horretan Euskal Udal Administrazioaren Batzarra izan zen lehen urratsa. 1919an ehunka alkate, zinegotzi, udal idazkari, parlamentari eta diputatu bildu zituen Tokiko Administrazioaren oinarriak jartzeko, denek nahi zitzuten foruak berriro ezartze eta egokitzearren aurrerapauso gisa. Urte horretan bertan hasi zen eztabaidatzen Autonomiari buruzko Kongresu baten antolaketaz, ordezkaritzarik zabalena bildu beharko zuena, nahiz eta Primo de Riveraren diktadura aldarrikatzeak zapuztu zuen ideia hura.

Diktadura amaiturik, 1930ean, Eusko Ikaskuntzak bildu egin zituen autonomiaren aldeko gogo biziak, ia gizarte sektore guztietatik heldu zittaizkionak. Alderdien gaindiko bere jarreragatik, hausnarketaren alorrean borondate plural eta abangoardiako biltzailea izanik, beste ezein erakundek ez zuen berak adinako gaitasunik, ez eta legitimitate handiagorik, sentsibilitate guztiak onetsia iza-teko eta lurrealde guztietan onar zitekeen estatutu baten aurreproiektua sortzeko. «Eusko Ikaskuntzaren mementua da, apolitikoa, inpartzialagoa eta, batez ere, eraginkorragoa den aldetik, oro har ospe onaren jabe delako eta alderdi guztien gainetik dagoelako» idatziko zuen orduan Javier de Landaburu, *El Día* Donostiako egunkariaren zuzendariak.

Modu horretara, Elkartearren baitako adituen Batzorde batek Euskal Estatutako Estatutu Orokorraren Aurreproiektua prestatu zuen, eta horren edizio originala erreproduzitzen dugu hemen facsimile bertsioan.

Idoia Estornes, garai horri buruzko azterlanik sakonenaren egileak egokiro esan du testu horretaz*: «Euskal bizitza kultural eta politikoaren pertsona ospetsuen lan neketsuaren emaitza izan zen, pertsona horiek elkarrekin harremanetan El-SEV-ek trebeki jarri zituelarik, urte haietako euskal eta nafar klase politikoaren sail zabal baten baltzuango asmoei erantzungo zien aurre-proiektu bat presta zezaten». Besteak beste, nabarmentzekoa da Eusko Ikaskuntzaren Aurreproiektuak asmatu egin zuela foru tradiziona eta federalismo modernoa adosten, eta hainbat arazori aurrea hartu ziela alde askotatik, bai eta denbora aurrera joan ahala gauzatuko ziren irtenbideak aurreratu zituela ere.

Argitaratu zenetik, 1931ko ekainaren 1ean, testu hura eredu eta erreferentzia izango zen ondoko proiektu asko eta askorentzat, hala nola EAJren Lizarrako Estatutua, Nafarroako Diputazioko Batzarde Kudeatzaile errepublikazalearen Euskal-Nafar Estaturako Estatutu Orokorra eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako Batzarde Kudeatzaileen Euskal-Nafar Estaturako Estatutu Orokorra, eta are Gorteetan onartu zuten 1936ko Estatutua ere.

Harrezkero 75 urte iraganik, gaur jadanik esan dezakegu Eusko Ikaskuntzaren Estatutua historiara pasa dela negoziazio eta elkar ulertzearen paradigma gisa, hura prestatu eta idatzi zutenen kalitate eta maila moralaren agergarri.

Hogeita hamarreko urteetako giro harekin zerikusi gutxi zuen testuinguru batean, baina filosofia berdina zuela, 2003an Eusko Ikaskuntzak Konstituzio proiektu bat aurkeztu zuen Europar Federazio baterako, eta hori izan zen Euskal Herritik eta Espainiatik Europar Batasunera aurkeztuko zen artikulu sail osoz hornituriko proposamen bakarra.

Euskal erkidegoen arteko egituratze eta bateratzeari lagunza ekartzea da gure Elkartearen sorrerako zereginetako bat, eta hori etengabe eguneratzen da iraganeko esperientziei buruzko gogoetak eginez, orainaren azterketaz eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko azterlan aitzindarien bidez. Gaur egun bereziki, ideia aurreratuak, paradigma berriak eta gure ahalmena katalizatuko duen jarraira proaktiboa eskatuko dituzten garaiei begira, sinetsita nago El-SEV-ek, bere egoera berezia eta bere kideen bikaintasun maila direla eta, munta handiko ekarpen sozialak eskaintzen jarraitzen ahal duela.

* ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia. *La construcción de una nacionalidad vasca: el autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1990. 730 or.

Ideia hori bera aurkitzen dugu Julian Elorza garaiko Elkarteko Lehendakariak 1931ko maiatzaren 31n Estatutuaren Erradakio Batzordearen lanak amaitutzat ematerakoan esandako hitzetan: «Eusko Ikaskuntzak ez du inolako ikurrin politikorik jasotzen, bere lanen emaitza Herriari eskaini besterik ez du egiten, eta Herriak egoki iritziko dion moduan hartuko du hori».

Xabier Retegi Ayastuy
Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria
2006ko maiatzaren 16a

A los 75 años del Estatuto General del Estado Vasco de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos

Desde su creación en 1918 a iniciativa de las Diputaciones de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos (EI-SEV) se implicó en la tarea de articular institucionalmente a los cuatro territorios de la Vasconia peninsular.

Un primer paso en esta labor fue la Asamblea de Administración Municipal Vasca que reunió en 1919 a cientos de alcaldes, concejales, secretarios de ayuntamiento, parlamentarios y diputados para sentar las bases de la modernización de la Administración local, como paso previo a la deseada reintegración foral y a su reacomodo. Ese mismo año se comenzaría a debatir sobre la organización de un Congreso sobre Autonomía con la más amplia representación, idea que la proclamación de la dictadura de Primo de Rivera frustró.

Al término de la misma, en 1930, EI-SEV recogió los anhelos autonomistas que desde prácticamente todos los sectores sociales le fueron manifestados. Por su posición suprapartidista, integradora de voluntades plurales y de vanguardia en la reflexión, ninguna otra entidad estaba tan capacitada ni poseía mayor legitimidad para alumbrar un anteproyecto estatutario que pudiera ser aceptado por todas las sensibilidades y en todos los territorios. «Es el momento de Estudios Vascos, como apolítica, más imparcial y, sobre todo, más eficaz, por gozar de general prestigio y estar por encima de todo partido», escribiría entonces Javier de Landaburu, director del periódico donostiarra *El Día*.

Fue así como en el seno de la Sociedad, una Comisión de expertos gestó el Anteproyecto de Estatuto General del Estado Vasco cuya edición original reproducimos aquí en versión facsímil.

Idoia Estornés, a quien debemos el más profundo estudio sobre este período*, ha señalado oportunamente que el texto «fue fruto de una laboriosa tarea de personalidades de la vida cultural y política vasca que El-SEV tuvo la habilidad de poner en contacto para que idearan un anteproyecto que respondiera a las aspiraciones comunes de una amplia capa de la clase política vasco-navarra de esos años». Entre otros aciertos hay que destacar que el Anteproyecto de Estudios Vascos supo armonizar la tradición foral con el moderno federalismo, y en muchos sentidos anticipó problemas y avanzó soluciones que se harían efectivos al correr del tiempo.

Desde su publicación, el 1 de junio de 1931, el texto se erigiría en prototipo y referencia para gran parte de los proyectos posteriores (el Estatuto de Estella del PNV, el Estatuto General de Estado Vasco-Navarro de la Comisión Gestora republicana de la Diputación de Navarra, el Estatuto General de Estado Vasco-Navarro de las Comisiones Gestoras de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y Navarra), y hasta el mismo Estatuto de 1936 aprobado en Cortes.

Transcurridos 75 años, hoy podemos ya decir que el Estatuto de Estudios Vascos ha pasado a la historia como un paradigma de negociación y entendimiento, reflejos de la calidad y talla moral de quienes lo prepararon y redactaron.

En un contexto bien distinto al de los años treinta pero con una filosofía común, en 2003 la Sociedad presentó un proyecto de Constitución para una Federación Europea, que sería la única propuesta con articulado completo elevada desde Vasconia y España a la Unión Europea durante su proceso constitucional.

Contribuir a la vertebración y a la armonización entre las comunidades vascas es tarea fundacional de nuestra Sociedad, que se actualiza permanentemente con las reflexiones sobre las experiencias del pasado, el análisis del presente y los estudios precursores ante los retos de futuro. Particularmente ahora, en el horizonte de un tiempo que va a exigir ideas avanzadas, nuevos paradigmas y una actitud proactiva que catalice todo nuestro potencial, estoy convencido de que El-SEV, desde su singular posición y con el nivel de excelencia de sus integrantes, puede seguir ofreciendo aportaciones sociales de trascendencia.

* ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia. *La construcción de una nacionalidad vasca: el autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1990. 730 p.

Es la misma idea que subyace en las palabras con que Julián Elorza, a la sazón Presidente de la Sociedad, cerró los trabajos de la Comisión redactora del Estatuto, el 31 de mayo de 1931: «Eusko Ikaskuntza no levanta bandera política de ninguna clase, sino que se limita a ofrecer al País un resultado de sus trabajos, que el País recibirá del modo que estime conveniente».

Javier Retegui Ayastuy

Presidente de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos

16 de mayo de 2006